

# GERRALDIKO KRONIKAK EUSKARAZ

## EMEN GARA!!

**Eguna** euskara hutsean idatzi zen Euskadiko lehen egunkaria izan zen. 1937ko urtarrilean sortu zen eta ekainean zarratu (13an). *Emen gara* tituluarekin irten zen lehen zenbakia 1937ko urtarrilaren 1ean:

Pozez ganezka gatzoz eta poz orreri eutsi eziñez negarra yator-ku begietara. Ezin dogu ziñestu. Euzkeltzale ta euzkeldun gustion ames zoro ta ezintzat uste zana, egi ta ixatean biurtuteko agindu zindua artu dogu goxetik gabera.

Eta EGUNA yoatzue gaur, euzkeldunok, zuen gurari ase-gatxak beteten; EGUNA zuen biotzen maitetasunak piztu ta gartsuten...

Amesez ganezka ta itxaropen bixiz gatzoz. Euzkerea erabilkatza dala uste dabenei arpegi emoten dautsoegu...

Urte barri, bixitz barri, diño esaera zarrak. Negarrez intzirika, guda zital eta negargarrian odol-tuta argittan dan urti-orri begira jayoten gara, euzkeraren bixitz barri ixateko asmoz. Eta gure jayotza txiruan, oroipenik maitekorrena dogu gure errijaren azkatasunaren alde euzko-mendi aberatsen gibeletan diñarduen gudari errimientzat, eta euzkerearen alde zintzoro ekin ebelako eraillduak ixan ziran euzkel idazle argi ta jakintsuentzat gure gorasarrerik beroena gordeten dogu...

Etxepare'ren ames berberetz kutsatuta gatzoz. Eta EGUNA biotz, begi eta gogetan darabilgunek, idazle zar aren kanta bero ta gartsuz didar dagigun: Euzkera, jalgi adi kanpora! Euzkera, jalgi adi plazara! Euzkera, abil mundu gustira, EGUNA'ren egoetan!...



Euskal prentsaren lanak  
[www.hemeroteka.eus](http://www.hemeroteka.eus)



URRILLA  
4  
Igandea  
Bilbao, 1936

**EGUNA**  
Lgo. urtia  
1'gn. zenbakija  
**EMEN GARA!!**

**VERRESANAK**

**Gurutzea, Sabin, Euzko-Ikurrina... iru adore-iturburu**

**GURUTZEA**  
Euzko-Emakume Matia...  
Aberrija abenda barik, ezin ezor. Ele bako orrija ezin ezor. Elia irakurri ta idatzari barik, ezin bixi lei... Euzkerea, ha, ezin bixi irakurri, euzkerea idazari ta ixarrenda, egiten espadogu.

**Gure lendakarijak itz...**  
...dausku

**Matxinada - izparrak-eta**  
**Elgoibar'tarrak Lekeitio'n**  
**skerari buruz itzalditxoa**

*Eguna* sortu aurretik *Euzkadi* zen euskara erabiltzen zuen egunkari bakarretarikoa<sup>1</sup> (Lauaxetak zuzentzen zuen euskarazko saila), baina gehienbat gaztelaniaz idatzita zegoen. Hain zuzen ere, Euzkadi egunkariko euskarazko sailekoak izan ziren proiektu berria martxan ipini zutenak. Abeletxe (Manuel Ziar-solo) izan zen zuzendaria eta Augustin Zubikarai, Jose Maria Arizmendiarrera, Alejandro Mendizabal eta gure Eusebio Erkiaga izan ziren erredaktoreak. Jakina, beste kazetari pilo bat-tek hartu zuen parte; guri herrietako kolaboratzaileak interesatzen zaizkigu, batez ere, dakarkizuegun Ixaka, Arbintxe eta Ertze.

**Ixaka Azpiazu** elgoibartarra zen eta Lekeitiora etorri behar izan zuen Elgoibar tropa frankistek hartu zutenean. Lekeitiotik idatzitako bere lehen kronikaren titulua Elgoibar'tarrak Lekei-tion izan zen eta *Euzkadi* egunkarian agertu zen 1936-10-4an. Ordurako, Elgoibar jausita, elgoibartarrak Lekeition ziren. Eskarmentu handikoa zen ordurako Ixaka (181 artikulua aurkitu ditut Ixakak sinatutakoak Euskal prentsaren lanak web-orriko bi-latzaileaz). *El Día* egunkarian estreinatu zen 1930ean; *Argia*-n, *Euzkadi*-n eta *Eguna*-n ere idatziko zuen.

Beste ezer gutxi dakigu. Lekeitiotik Bermeora egin zuen (1937-2-19ko artikulua batean aitortzen du) eta hurrengo Frantzian aurkitu dugu, *Eresoinka* abesbatza taldearen partaide. Izan ere, *Euzko Gudariak* kantua grabatu zutenetako bat izan zen (Paris, 1938-12-21).

**Arbintxeri** dagokionez ez dut ezer aurkitu. Lekeitiarra izan zela dirudi, erabili zuen euskara bertokoa delako baina ezin izan diot izen-abizenik jarri ezta kronika gehiagorik aurkitu ere. Lastima zeren orduko lekeitiera entzun eta sentitzeko kronika aproposak baitira. Bitxiari antzean, Arbintxeren kronikei, urritasunak, eskasiak balio erantsia ematen die.

**Erramon Ertze Garamendi**, berriz, oso ezaguna da. Lekeition jaio zen (1910) eta Bruselan hil (1974). Abade ikasketez gain Belgikako Louvainen Zientza Politiko eta Sozialetan lizentziatu zen. Belgikan bertan abadetu zen eta 1934an bueltan zen Euskal Herrian. Gerra garaian Loiola batailoiko kapilau izan zen eta 1937an, Bilbo jaustear, Belgikarako hiru mila umeren eba-kuazioaren arduradun. Erbestealdian, berriro ekin zion ikaste-ari Louvaineko unibertsitatean. 1948an kontinentez aldatu zen, Mexicora joan zen eta lantzean behin Belgikara bueltatzen zen arren, Mexicon finkatu eta errotu zen. Lan ikaragarria egin zuen abade, irakasle eta batik bat kazetari moduan. 10.000 artikulutik gora! idatzi -eta irratiz kontatu- zituen, *Suma y resta* eta *La marcha del mundo* liburuetan batuak; jakina, gaztelaniaz idatziak. Tamalez, gerra geroztik ez zuen euskaraz idatzi baina gerra aurre eta gerraldian, berriz, euskaraz zenbait artikulua idatzi zituen eta gainera *Ekin* aldizkariko zuzendari ere izan zen. 19 dira *Ekin* aldizkarian idatzi zituen artikulua. *El Día*, *Euzkadi* eta *Eguna* egunkarietan ere agertu ziren haren kronikak. Guk gerra garaian Egunan argitaratutako hiru kronika laburbildu ditugu, haren ideia edo pentsaera izpiak.

<sup>1</sup> Ez zen bakarria izan. "El Día" Donostiako egunkari abertzalean eta "La Constancia" egunkari integristan ere agertzen ziren albistek euskaraz. Baita Nafarroan ere, esaterako "Diario de Navarra"-n. "Argia" aldizkaria, berriz, euskara hutsean ateratzen zen.

# Nork negar ez?

Ixakaren kronikak



Ixaka Azpiazu

## EUZKADI, 1936-10-4 ELGOIBAR'TARRAK LEKEITIO'N

**ERRIA AMETS.** -Gudaketa zitalak dakartzkigun ibilerak Gipuzkoa'n azkenetakoa "facista"ren mendean izan da Elgoibar. Eta gu, diot, erritar talde eta erriburu edo "komite" izan geranok, azken orduan irten giñan, Bizkaya erriruntz anai arteko bero zabalen itxaron giñan eta.

Orrela, Markiña'tik zear, ara Lekeitio'n elgoibartarrak. Lekeitio'ko uri polit onek besarkatu gaitu eta bertan gaituzte, poz-pozik egun eta geiago elgoibartar, au da Elgoibar'tik atera giñan erria. Erria diot, atera giñanak, danok batean gerala, danok eta danen arazoak batean darabilkigulako. Au eta emen Bilbao eta Gernika eta abar, ba'dira bai, banaka elgoibartar batzuk, baña emen Lekeitio'n alkarturik geranak, degu Elgoibar erriaren izena, ez or banaka dabiltzanak. Banaka bizitzea gaur errexagoa, bai da. Erritarrak batuta erbeste edo auzoan bizitzea zala, eta egin bear aundikoa. Bertatik alkar lagunduta geranok, degu Elgoibar'ko erria, eta gaur Lekeitio'n gera.

Iparragirre'k bere erria amets izan bazuan ez degu gutxiago amets geure txokoa, elgoibartarrok! Ain maite ta ain txukun gorde degun erritxoa utzi bearra izan genduan ezkeroz, egunaro eta beti amets degu bere pakea. Eta noiz ikusiko ote degu gure erriaren apaña? ¿Noiz gure amaren abotsa entzun? ¿Noiz besteak beren emaztearen eta eta seme alabaen muxua ikutu? Guda, guda zitala zzerगतik zera orrela?

Gure nahigabearen poza, Lekeitio'ko itxas-bazterra izaten degu. Talde bat, abertzaleak alkarrekin ibiltzen gera. Itsas-ertzian, prezkatu aldia ez ezik, alkar alai alditxoa izaten degu. Erria gogoan beti, baña Jaunaren naiaren menpean.

Alkarrekin Zabala, Silvino, Tiburtzi, Lontza, Kanuta, "Usurbil", Argarate, Zuazubizkar, Kerman eta neu izan oi gera. Anai maite baidegu alkar. Bertatik, sendi guztioi! agur dizutegu, gure gaurko txoko ontatik.

Egun abetan eta Lekeitio'n, Gipuzkoatar euzkal idazle ta abertzale asko agurtu ditugu. Ara: "Luzear", "Basarri gudari sargentoa", "Tene", Zumaia'ko Arrate, Etxabe, Azkoitia'ko Urzelai sendia eta abr eta abr. Gipuzkoa Bizkai anai artean bai'gera. (1)

Agur, agur t'erdi

IXAKA

Lekeitio'tik

(1) Gipuzkoarrentzat, Bizkaya, bene-benetako anaya matelia ixan da beti. Zorixar-aldijan, barriz, anaya baño geyago: besuak zabal-zabal eginda bere seme-alaba kutuntxubak altzo beruan aritzen dabezan ama.

Nire biotz-agurrik anaikorrenak, or aurkitzen zaren euzkel-idazle ta enparauko gipuzkoar gustijei. Agur. -I

# Elgoibar' tarrak Lekeitio'n

ERIA AMETS.— Gudaketa zitajak dakartzkigun ibilerak! Gipuzkoa'n azkene!akoa "facista,"ren mendean izan da Elgoibar. Eta gu, diot, efitar tajde eta efituru edo "komite" izan geranok, azken orduan irten giñan, Bizkaya eriruntz, anal arteko bero zabalen itxaron giñan eta.

Orela, Markina'tik zear, ara Lekeitio'n elgoibartarak. Lekeitio'ko uri polit onek besarkatu gaitu eta bertan gaituzute, poz-posit egun eta gelago elgoibartar, au da Elgoibar'tik atera giñan eria, Eria oiot, atera giñanak, danok batean gerala, danok eta danen arazozk batean darabilkigulako. Au eta emen Bilbao Gernika eta abar, ba 'dira bai, banaka elgoibartar batzuk, baña emen Lekeitio'n alkarturik geranak, degu Elgoibar efiaren izena, ez or banaka dabilzkanak. Banaka bizitzea gaur efixagoa, bai da. Efitarak batuta efbeste edo ausoan bizitzea zala, eta egin bear aundikoa. Bektatik alkart inganduta geranok, degu Elgoibar'ko eria, eta gaur Lekeitio'n gera.

新語新

Ipatagite'k bere eria amets izan baruan ez degu gutxiago ametsa geure txokoa, elgoibartarok! Ain maite ta ain txukun gorde degun efixoa utzi beafa izan genduan eskeroz, egunaro eta beti amets degu bere pakea. Eta jnois ikusiko ote degu gure efiaren apaña? jNoiz gure amaren abotsa antzun? jNoiz besteak beren ematearen eta seme alabaen muxua ikutu? Guda, guda, zaita, jzergatik zera orela?

新語新

Gure nalgabearen poza, Lekeitio'ko itxas-bazterea izaten degu. Talde bat, aberitzaleak alkartekin ibiltzen gera. Itxas ertzian, prezkatu aldja ez enik, alkart alai alditxo izaten degu. Eria gogoan beti, bañ jaunaren naiaren menpean.

Alkartekin Zabala, Silvino, Tiburtat, Lontz, Kanuta, "Usurbil", Argarate, Zugabizkar, Kerman eta neu izan oi gera. Anai maite bai degu alkart. Bertatik, sendi gustioel agur dizutegu, gure gaurko txoko ontatik.

新語新

Egun abetan eta Lekeitio'n, Gipuzkantar euzkal idazle ta aberitzale asko agurtu ditugu. Ara: "Luzcar", "Basari" gudari "sargentoa", "Tene", Zumaja'ko Afate, Etxabe, Azkoitia'ko Urzelai sendig eta abar eta abar. Gipuzkoak Bizka! anai artean balgera. (1)

Agur, agur l'erd!

IXAKA.

Lekeitio'tik.

(1) Gipuzkoarentzat, Bizkaya, benebenetako anaya mañela izan da beti. Zoritxar-aldjan, baziz, anaya baño geyago: besuak zabal-zabal egin da bene seme-alaba kutuntxubak alizo beruan aften daberan ama.

Nire bilotz-agurik anai'koñenak, of aurkitzen zaren euzkel-idazle ta enparauko gipuzkoar gustioel. Agur.—I.

## EUZKADI, 1936-10-8 LEKEITIO'N OROIGARRIAK

Euzkadi'ko uritxo polit eta itxas bazter eder Lekeitio'ntan igaroaz ditugun egunetan, ametsa eta artean, oroigarri asko, gogo barren-barrenera jotzen duten gauz asko izaten ditugu.

Kezka eta amets, gogo itun aldi eta alai-naiko uneak ditugun egun abetako oroigarritxoak, ara emen, irakurle anaiok.

Deun Mikel, goi aingeru, zaindariaren eguna, bat gogo-oroigarri. Zergatik? Guk elgoibartar bezela, Mikel deunaren baso eleiztxoa ba degula errian gogoratu giñala, bertan guda zorrotza egunak egun. Bertatik eguna gogoan. Eta ara emen Lekeitio'n, jaupa entzun naian txadon-eleiz ederrera urreratu nintzan eta eleiz atean nerekin batean taldea, euzko-gudari gazte taldea izan giñan. jA! Deun Mikel, Aralar tontoretik zaindari eta laguntzalle uste bai degu. Bera oroi, eguna ospatu nai genduan, otoi agurtuaz.

jDeun Mikel guria

Zaidu Euzko erria!

"Estatutoa" degu. Ongi etorria bedi Euzko-gogoak zutu ditzagun. Aberri

Egun oroigarria, au ere. jNola ez? Eta euzkotarrak, eguna goratu nai, ospatu nai. Lekeitio'ko Euzko-Batzoki'ko aretoan ba-zan alaitasunik, urrila'ren lenengo egunean, iluntzi aparti ondoan.

Ontan "Basarri" aitatuko "sargento" gudari trebe ta bertolari jatorrenak, ara zer abestu zuan.

Kantu ederrez denen aurrean zerbait bear nuke mintzo arren arretaz entzun zazute gaur niganduz duan itza:

ni jaiu nintzan erri gaxoan, auxen bada zori gaitza, anai batzuek bestien aurka guda beltzean gabilta.

Lau militar zar ondatugatik etorri zaigun ekaitza, beste gauzarik ez dabilkite gorrotua ta bekaitza.

Baño oraindik zutiñik dago Gernika'n degun aritza.

Ura ez dute azpiratuko, alper-alperrik dabilta.

Basarri'n bertso au jatorra benetan, eta ainbat txalo zutik jo zizkioten. Bai merezi ere.

Oi dek Basarri, tori bostekua!

Euzko-biotza ziñizmenduna da. Ezin ukatu. Eta batez ere Ama Zerukoaren maitalea euzkoa. Agurtza "errosario"ko Amaren jai, itxas gizonen biotz zabal-beroan artean igarotzea etorri zaigu aurten-goz.

"Mariñela", itxaz-gizona Ama Zerukoaren maitale dezute bereziki. "Salvia", otoi beroa dute itxaz lanetara dijoazela. Izar ederra, Amatxo-zerukoa, ekaitz artean itxaron sendoa.

Lekeitiarrak ederki ospatu dute eguna. Itxaz gizonak bero abestu dute agurtza. Txadon-eleiz ederraren barruan ibildeuna egiñaz. Abeslari taldeak "Agur Maria" abetzen zuten. Ez nola nai, Valdes'tar

Alexander txotxa eskuan zuzendari zuten eta berak egindako lanak abestu zituzten. Ederrak abestiak. Neretzat goxoak ziran beñepein. Txalo bat Alexander.

Ara emen nik gogoan izango ditudan iru egun. Etxe-txokotik urrun, ametsa artean, barren-barrenera ditudan oroigarriak. jAinbat egun oroigarri izaten dira gure lur maite ontan!

IXAKA

## EUZKADI, 1936-10-15 GURE PELOTARIAK

Esango dirazute, ez dirala gaurko egun auek, guda zital auek, gai onetzaz gogoratu gaitezen. Nik ezin ukatu une egokienak ez dirala baña bai nozki gure pelotariak lan onurakorra egiten dutela aldi ontan, eta beragatik gogoratzea ondo dautzo.

Bizkaï'ko "Junta de Asistencia Social" deritzon bazkunak, ondo daki pelotariak nolako laguntza ematen dioten. Jokaldi ederrak izan bai dira eta ixango dira Gernika, Mungia eta Bilbao bertan ere.

Gure pelotariak beaz guda aldi ontan ere laguntzale ditugu eren eskuko jokalege, pelota, euzko kirolean euzkoenarekin.

Nun dira pelotariak? Euzkotar zintzoat (sic) ditugu geienak eta "pazista" gandik urruti edo urruti naian dira geienak.

Bizkaï'ko lurtean dirala esatea egokiena, emen bai' dira taldea. Gernika'n ikusiak ditut Kirru, Ubilla anaiak, Kortabitarte. Or izan bear dute Onaindia, Lete, Txara, Korta, Juanito, Arrien, Aboitiz eta abar. Lur ontan da Iraeta'ko txikia ere. Etxaniz anaiak, Ea uritxoan izan bear dute.

jBesterik? Bai. Emen Lekeitio'n ikusten ditugu beste batzuk. Urzelai aita, okalari (sic) bikaña bere semearekin emen degu. Baita Lekeitio'n, Zabala elgoibarra, eta beren laguntzea bear bada, gertu dagoela dio gañera. Kasimiro'k beti euzko-alde gogor jokatu bai izandu. Eldu bada, berari.

Uribe, Arrasatekoa ere, emen degu Lekeitio'n. Orra nola, Lekeitio'n bertan eraldu liteken oek gustiekin jai aldi bat.

Besterik? Elgoibar'ko Murua, Markina-Etxebarria'n argitzen da eta Elgoibar'ko Arrien, eskertia, Bilbao'n bertan, jokatzeko gertu.

Eta besteak? Ezin zair esan. Diotenez Etxabe IV, Aranburu, Altuna... Laburdi aldean dira. Entzun genduan Irureta eta Atano IV. ere etxetik alde egin zutela.

Mondragones eta Artazo berriz, etxezale nunbait, diotenez, an... gelditu omen ziran.

Gure Juxto Artazo'k, orixe egingo zuanik ezin degu siñistu. Baño... diotenez

Eta besteak? A! Bai Atano anaiak nozki. Donosti aldan jokaldi bikañak egiten omen dituzte "karlista"n aldeko jaietan. Ala irakurri genduan, eta gogon izatekoa da.

Gure pelotariak geienak ikusten direnez euzko-jatorrak dira. Postutzen gaitu, eta erok eman lezean laguntzarekin baita euzko-jaialdiari lezaio-kenonagatik gure ondoan, euzko-lur maitian ikustea nai ditugu.

Lekeitio,  
IXAKA

## EUZKADI, 1936-10-20

### ERRIJETATIK LEKEITIO'N

**ELIZKIZUN BAT.** —Aitatu bezela, igazi dan ostegun, 15'an, Lekeitio'ko ertxadon nagusi ederrean, Amuzkibar'tar Mikel gudari gaste zarauztarraren gogo-alde jaupa izan zan, goizeko 9 t'erdietan (G. B.)

Mikel'en gudari-lagunak eraturta zegon elizkizuna. Anaiaren gogo-alde zerbait egin eta gudari trebeari omenaldia eratu naian. Erok, lagunak, guda mutil bezela errezkadan irunaka eleizara ostera egin zuten, "teniente" Makazaga, zarauztarraren agindupean. Esan bear det Mikel gaxoaren talde au, —lenbiziko taldea— dala emen Lekeitio'ko erriaren zuzena —"orden público"— daramakiña. Guda eta arteko lanetan, anai-anaiakin gogoratutik, elizkizun au oparitu dioten, Amuzkibar'tar lagunari.

Ordua etorri da eta eleizan talde aundia. jaupa esan zuan Lekeitio'ko txauburuabak. Aldarea berez ederra, argiz apaindua jarri ziguten eta benetan arritu giñan edertasunaz. Esango det, Lekeitio'ko edertasunik ederrena ertxadon dan basilika, auxe dala. Benetan eta izan ere, nerretzat.

Jaupa ondoren Mikel'en gogo-alde, otoi "errespontso" a izan zan. Abeslariak J. Baldes'en "Liberame" iru abotsetara abestu zuten. Abeslari taldean bai lekeitiar bai zumayar. Etxabe buru zutela, bai deba'tar, bai elgoibatar eta abar giñan lagun. Zotza eta jator txauñeslaria dau Baldes'tar Alexander'ek erabilita, gogo biziaz abestu genduan. Abesti ederra "Liberame" auxe, lenbizikoz abestu ba'degu ere, iruritu zaigu.

Onela, otoi beroa zizendu eta, Amuzkibar'tar Mikel'en gogo aldeko elizkizuna bete genduan. ¡Jaunak berarekin euki dezala!

Elizkixun au zala eta talde aundia izan zan. Ala bear ere ta. Baita urruti aldekoak ikusi giñuzan: Ayerdi'tar Mikel, Kortajarena beñepein. Gernika'tik etorriak ziran. Euzko-anaitasun eriotzak ez du iltzen.

IXAKA  
Lekeitio'tik

## EUZKADI, 1936-10-27

### LEKEITIO'N

**NORK NEGAR EZ?** —Giza artean gorrotogarriena anai artean egiten dan guda, eta gudaketan negargarriena umetxo gaitz gabeko, andre, gizon paketsuak, erri ta basetxe ederrak il eta zatituaz egiten dau kaltea.

Guda! Eta gorroto ta negargarria darabilkigu eskuetan. Anai arteko odol gorri ederra ez ezik, umetxoen irriparra, amaen biotz-maitea, gaizgabekoen malko ugariak puzkatu eta itzuli erazotzen ditu, gaurko guda gorrotogarriak.

Lekeitio ara emen erri paketsua. Eta ara emen baita ere gudaren negargarriena. Egazkiñak, Lekeitio gorrota dute ta umetxo, neskatxa, ama, eta gizon gasteak beren tresna madarikatua bomba'kin eriotza eman diote.

Ostegun, ostiral onetan bost il dizkigute egazkiñok. Ostiral arratsaldeko bostetan eraman zituzten il-obira. Udaletxetik artu, bat, bi, iru, lau, bost errezkadan ziran. Aurrenengo nork? eta amaika

urteko mutikotxoa, elgoibartarra, andik aita eta ama eta anaiatxoakin Lekeitio'ra etorria, izena Iriondo eta Unzila'tar Alberto, Jose ta Josepa'ren semea. Nork esan Elgoibar'tik igezi, emen paketsu jolasean ari zala egazkin batek eriotza emango ziola? Jaunaren naia! Aita amari nere samin agina, biotzez.

Aingerutxo au aurretik zutela, beste laurak ziran errezkadan. Apaizak otoyak egiñaz, il obira eraman zituzten, ondoren ikurriñak, lore bureztunak eta talde aundia, buru erriko apaiz jaunak, Euzkadi'ko Agintaritzako Burukidea dan Monzon, lagun Orue-ta zuela, udalburu eta abertzale ta euzko-langile agintariak ondoren.

Lekeitio'ko erriak azaldu du, bere naigabea. Odolez gorrituak ikusi bai ditu bere semeen odolez, eta semetzat artuta zeuzkan erbestekoen odolez gorrituak bere enparantzak. Otoi bat, aren, ildakoen gogo alde! Samin agurra, sendi naigabetua!

*Nork negar ez, itun au ikusi Bai, alda biotzik, negargarri auek ita, mugituko ez danik? Jaun-Goikoaren agindua onela izan ote leike.*

(MAKETAZIO AKATSAK, testu NAHASIA)

IXAKA  
Lekeitio'tik

## EUZKADI, 1936- 11-1

### ABARRAK

**OROIZ.** —Ainbat begi malkoz bustiko ditu egunetako guda zital oneki Zenbat eriotz... zenbat gizon iltze... ene!

"Aitzol". Ezin burutik kenduko degu izen au, guda gizon "pazista" k begien aurretik kendu badigute ere. "J. Aitzol" euzkotar bezela maite ba'gunduan, etzan guretzat maite gutxiago langille aldeko laguntzalle bezela. Eta euzkotar eta langille aldeko benetako eta zintzoa izanik, jaupari burestuna zaramalako, ainbat eta ainbat goragarriago eta maiteago.

"Aitzol" Kristo'ren erakusbideen jarraitzalle eta zabaltzalle zintzoa. Orregatik il dute. Jaungoiko eta Lagi-Zarraren ziñopa degu.

Jaunak goi-zeruan burestundu dezala! Euzkadi'k urrezko izkiz idatzita "Aitzol" izena azaldu dezala.

Elgoibartarrak, negarrik ba'degu, egun abetan.

Lentxo, emen Lekeitio'n, egazkiñek botatako "bomba" kin gaztetxo erritar bat il zala esan nizuten. Aingeru gaxoa!

Gaur beste antzeko isparra eman bearrean nazute.

Markina'n egun abetan egazkiñak botatako gizon eraille diran tresna oiekin, beste elgoibartar bat il dute: Gabilondo eta Olañeta'tar Domeka "Txomin beltza" gaitz izenez deitzen genduana (G. B.) Gure "Txomin" au, abertzale ta euzko-langile zintzoa genduan, eta egunetan Markina'n erriko zuzena edo "orden público" ko gudari bezela zegon.

Izpar au jakitean, bai abertzale ta bai batez ere elgoibartarrok, otoi bat, arren

BURGAÑA'TAR J. M. "MURUGAIN"

EUSKAL IDAZLEARI

Izkilu, suaga dunbaots artean

Lekeitio'tik on urrun,

Esan diratek, lagun nerea

Egin aizela ezkondu.

Eskura arte ire maitea  
Bizi izandu ala itun,  
Orain berriz eure-eurea,  
Jaunak onetsita, kutun,  
Bizi adila beti Jel'pean  
"Murugain" idazle lagun

IXAKA  
Lekeitio'tik

## EUZKADI, 1936-11-5

### EGAZKIÑEN LANA

Gaurko egunetako gudaketaren zitalena egazkiñak egiten duten lana.

Gudan guda bezela saiatu eta indartzea, ondo esan bear, baña egazkiñak egiten duten lana ikusi ta ezin ontzat eman.

Ara emen Lekeitio. Uri paketsua. Gaitzik, zer du? Arrantzaleak bete itxas ertzea. Ontzi politzez apaindua gaia (sic). Andereño jagiak txaidean irriparrez. Ama umetxoakin maitale etxe atarian.

Eta ara emen Lekeitio'n egazkiñen gorrotoa.

Pazista egazkiñak, gorrotoaren dunbadak erri paketsu oin ezarri diote. Egun bat eta bestean, saspigunetan sei bider.

Eta gizon, umetxo, andereño, emakumeak il, gaxoak.

Ze erru izan oiek ortarako? Gaxoak errurik ez, baña egazkin oietan zijoazen biotz gabeak odol zale nunbait, eta ezer gordelekurik ezdakien gaxoak, iltzea amets.

Biotzik ezdute egazkin oietan dabiltzan gizonak. Abereak ere, ez dute alkar-jota gaxoa eta txikia gutxiago, orrela iltzen.

Ez dakit orrela dan, baña diotenez: "Viva Cristo Rey!" ojua omen dute ezaugarri.

Nik esango dizutet, bai, bertatua.

Lekeitio'n kistar erria bezela, urrirlaren azkenengo igandean Kristo Bakaldunaren-Bakaldun bakarra jaia ospatu zan, ospe aundiz goiz goizetik.

Arratzaldean elizkizun berezia zan. Eleizan notin aundia. Ontan ezkila kanpai-otzak egazkiña datorrela dei du. Beriala jua dala, dio kanpaitxuak.

Otoiek egin eta Jauna-agirian onezpena ematera dijua apaiz-jauparia.

Dun-dun ezkilak, egazkiña dator, dio berriz ere. Ikaraz gera eleiza barruko danok.

Dunbada ots ikaragarria entzun da. Eleiz ertxadon urrean dan Odol-etxe inguruan, bota du egazkiñak bere pozoia.

Eleizan guztiok auzpez Jaunaren onezpenaren zai giñan eta dunba otsa ixildu bezin laxter, artu degu Jaunaren agurra.

Onela aurtengo Kristo Bakaldunaren jaia Lekeitio'n.

Kristar biotzak barren-barrenetik bero-bero Bakalduntza goratzen.

Aoz ao "Viva Cristo Rey" dariotenak Kristar erria iltzen, eta egun berean; unerik dontsuenean.

Benetan zitala, gorrotogarria, pazista egazkiñak Lekeitio'n egiten duten lana.

IXAKA  
Lekeitio'tik

**EUZKADI, 1936-11-8**

**ERRIJETATIK  
LEKEITIO**

**ERRIAREN SINESMENA.** —Euzko-errietan sendoa dala sinesmena esan oi da, eta euzkoaren ezaugarria bezela uzkuertz-zaletasuna.

Erri oetako bat Lekeitio'ko au dala esango, nuke. Ala iruditu zait egun abetan beñepein.

Diot Domurusantu-arimen egun abetan, kristartasuna azaldu duala.

Domurusantus eleizkizun berriak izan ziran. Goiz-goizetik Jaunartze ugariak. Amarretan jaupa nagusia Ravanello'ren iru abotsetakoa abestuz.

Arratsaldean, Gogo-arimeen aldeko "besperak", eta eskutapen edo misterioak otoi zutsuz esanda.

Oitura omenda, esan ziraten, eta ederra, diot nik, batez ere itxas-gizon lekeitiarrok "Antigua'ko Amari" dioten zaletasuna ikustean. Ikusi bai det, nola Antigua'ko Ama orren aldareko irudia azaltzen dutenean, burua makurtuaz nola agur egiten dioten.

Ama orrek gordeko al ditu bai itxas eta bai leorreko arrizku guzietatik.

**IL OBIRATZEA.** —Ustez-uste gabean ezer ez bai nekian. Izparrangia eskuratu eta nijoala, orra nun aurrez-aurre txaidean il obiratzea zijoan taldeakin.

Ene! Gurutza Deuna lenbizi eta euzko-ikurriñakin batu eta lorez ornitutako il obia, euzko-tarren bizkarrean. Ondoren euzko-gudari taldea irunaka errezkadan, bere laguna zainduaz. Erriko Uri-Buru-Batzarreko agintari, Euzko-Langille ta abar notintza aundia zijoan ondoren.

Nor ete da? esan nuan nereko. Ez zaio ajolarik. Euzko-gudaria izan da. Aberri alde odola eman duan euzkotarra jel ikurriñak batu du ziñopa.

Otoi bat

**ARREN.** —Al balite, ara EUZKADI'ri ezkarri bat. Egazki'ñen bildur da erria, goiz-goizetik. Beaz, goiz-goiz, alik goizen, nai genduke eskuetan gure izparrangia EUZKADI. Arren eta arren.

IXAKA

Uarra. —Gazteleraz idatzita bidaldu dozun idazkija, irakurteko ardurea dauan jaunari emon dauats. Beraz, idazki-erantzuna be, aren ardurape geratzen da. —I.

**EUZKADI, 1936-12-3**

**ERRIJETATIK  
LEKEITIO**

**KOIKILE DEUNA.** —Edozelan eta nunnai abeslari eta ojuka ibiltzeko egunetan ezgerala esango dirazute. Eta egiaz. Baña norbere eguna eta zaindari baten eguna ezin beñere aztuta utzi litezke.

Orrela abeslarien eguna, Koikile Deuna zaindari degula, ezin inola aztu. Egunetako zorigaitzeen larrian ere, zerbait berezi zaindari Deunari, ezkiñi gabe, ezin izan abeslariok.

Emen Lekeitio'n jaupa ezkiñi giñion, besterik egiteko betarik ez ta. Igandean izanik, amarretako jaupa nagusia bereziki apaindu genduan Perosi'rena iru abotsetara, Baldes'tar A.'ren zotzaren azpian.

Gauza gutxi zala esten ba'dezute ere, gogo onez eta biotz osoakin ezkiñia genduan, nozki, jaitxo au.

**SABIN'EN OROIZ.** —Azila'ren 25'a ezin aztuta igaruz euzko-biotzetan.

Onela gertatu da Lekeitio'ko euzko-biotz abertzaleekin. Irakaslea maite ta oroi dutenez, eriotz urte urrenean zerbait oroiarri ezkeintzea nai izan dute. Irakaslearen oroi ez gogo alde, anai-abertzale ildakoen gogoalde ta batean.

Ezin ba, gaurko egunetan Lekeitio'koakin apaizta egiten dugun erbeste, obeto esanda, auzokoak, ezin ba guk ere, euzko-biotz baita, Sabin'en oroi zerbait izan, eta gure aldetik aldeguna egin gabe gelditu.

Onela Lekeitio'ko euzko-anaitza zerbait izan, eta gure aldetik aldegu abertzaleak ederki gogoratu du eguna.

Jaupa zan izentatua, eta goizeko bederatz laurden gutxiagotan asi ziran il-otoiketak. Gero, jaupa, Abertzale-talde abeslariak Baldes'tar Juli Apaizaren iru abotstako jaupa eder-ederra abestu genduan, zuzendari Baldes'tar A. genduala, eta txaneuslari egilea bera.

Ederki atera zela abeslarien lana esatean, ez dut uste oker izango naizenik. Begiratu nor genduan zuzendari eta nor "organista".

Baña esango, jaupa-abesti eder-ederra iruritu zitzaidala Baldes'tar J., apaizaren "misa requiem" auxe. Orain dala urte bi egiña dala eta garai ontaroko esan dizate.

Ainbat txalogarriagoa egilearen lana. Len ere baiditu lan ederrik asko, baña nere aldetik txalo bat "meza" eder orregatik.

Eta, auzardia bada ere, esango det, zabaltzea merezi duala, eta gure errietan —euzko lana bai'da— artu eta abestuzte.

Elizkizun ontan, abertzale notin aundia izan zan, guzien aurretik Irakaslearen lengusua an, Larrea'tar Jon, eta U. B. B.'ko agintariak.

Egun orretan zuzendu ziran otoitzak, Goi- Jaunak entzun ditzala, arren.

AZILLA

Domuru-Santuz azten da illa,  
Animena du bigarren eguna;  
Kristar gogoak gomutan ditun,  
Bat egun alai, bestea ituna.  
Ospatu soñu-abesti zaleak  
Ogeita-bian Koikile'n zoruna.  
Ogeita-bostean Irakasleaz  
Oroituko da euzko-biotz duna  
Ama domeña-mirangilleak  
Ogeita-saspin agur kutunak.  
Ogeita-amarrean agur azilla,  
Euzko-Langilleak Ander Deuna.

IXAKA  
Lekeitio'tik

**EUZKADI, 1936-12-18**

**ERRIJETATIK  
LEKEITIO**

**EZKONTZA.** —Ezin ukatu bai dirala orindik "baliente"-ak. Guda otsak ez dituala bildurtzen, ez eta etoikisunaten (sic) ilun-beltzak.

Guda on doan degun erri ontan ikusi degu oetako bat. Ezkondu bai da.

Igezi dan larunbat 12'an, Ama Antigua'koaren onetan uztartu dira Garcia ta Goikoetxea'tar Julen, Lekeitio'ko semea. *Itxas-ontzi burua, Euzko-Langile lagun jator eta gaur emen Lekeitio'ko "Guda arazoeta-*

*ko Buruzagitza" (Comandante de Intendencia) garrijak dira, ta irakurri be egingo dabezela uste dogu.*

*Euzkerazko irakurgayak, ixan biar leukien beste irakurle ezpa daukie be, Bernaba jaunak iragarri ebanan sei "erromantikuak" baño geitxubago dirala esango geunke. Asteroko onetan euskeraz idatzi ixan debena beñepein, amairu idazle ixan dirala ikusten dogu. Eta oneik, eurak idatzitako idazlanak irakurri barik eztira oeratuko. Beraz, amairu idazlek amairu irakurle eziten dabez. "Sei" jokora ota egiten dabeneri, "Saspi geyago" erantzuteko beste.*

*Euzkerak irakurle askorik eztau, ez... Sei baño geitxuago bai, orratño.. de Guerra eta bertako andereño gaste Kortazar'tar Garbine.*

*Biak oso ezagunak izanik eta erritarrak, auzo guztiak begira zituzten eleizara osteran, zorionak eman naian.*

*Etixeratzean eleizatik irten bezin laxter, "Agur jauna" txistu soñu ederrez jo zuan "Atzeta" gudari taldeko txistularia dan Salzedo'tar Koldobika Joseba'ek.*

*Nere zorion agurrik beroena ezkon berriari, eta urte askotako zorion bizitza, euzko-sendi eder batean.*

(MAKETAZIO AKATSAK, TESTU NAHASIA)

**GUDARIAK.** —Mendi egunak igaro eta atsedean bila etorrita era eta mota askotako gudari taldeak ikusten ditugu Lekeitio onetan.

Eta ikusten degulako gudariak nolako alakoa oitura ezarten dutela errian, noiz baña noiz gure auda noiz euzko gudariak azalduko egon gera aspaldian.

Gaur egunetan pozik gera, txistu soñuz eta euzko-abestiz alaitzen geralako. "Atzeta" gudari-taldea degu emen eta ikustekoa da eron alaitasuna, batez ere Salzedo txistulari jator gaztearen trebetasuna. ¡Gora eul!

IXAKA

**EGUNA, 1937-1-3**

**LEKEITIO**

**EGUARRI-URTEBERRI.** —Egunetako guda intziri artean ere, guda on gertu-gertuan degun erri ontan, ikutu berezia izan dute bai Gabon-Eguarri eta bai Urte-zaar-urte berri egunak.

"Turroi"rik ez degu izan, baña arrai prexku ederra bixigu txitxarro eta abar ederrak ere bai nozki. Bear, gabon-gabeko aparia goxoa izan da. Aurten-googatik ere, Jaunari ezkerak eman bearrean gara.

Eguarri egunak, jai aundia bezela, eleizaratu ditu biotzak. Amarretan jaupa nagusia eder-ederra izan zan Perosi'ren "Eucharistica" abestu genduan. Amairean, J. Valdes'en eguarri abesti goxo bat.

Urte-zaarrak igez egin du. Agurra emana diogu alik ondoen. Urte-Berria, azi bezin laxter igezi bezela ba dioja; egunak ara iru.

Errixadonean jaupa naguzi ederra, beste eleizgai artean, izan da Perosi'ren iru abotsetakoa abestuaz. "Ofertorioa" an, Goikoetxea'ren "Ave Maria" eta azkenean "Josu negarrez", A. Ugarte'ren eguarri abestia zuzendari Valdes'tar A., abestu genduzen.

Urte zoriontzua izan dezagula, J. I.

**EUZKEL-IZENA.** —Igaro dan 22'an Lekeitio'ko bar "Leku-Eder"eko Irazola'tar Laurentzi eta Argoitia'tar Benite ezkontzako lenbiziko emaitza izan dute.

Amoroto'ko txadonean ugutzatu edo bataiatu da alabatxoa. Iturralde'tar Plazido itxaz-ontzi "patroi"

ezaguna, eta Bereikoa'tar Eugeni, "Aminaga" baserriko etxeoandra jatorra, izan dira besoetan artu dutenak eta Amaya euzkel izen polita jarri diote.

Zorionik beroenak aita-ama'ri.

AGURTU. —Egunetako jaiak dirala eta ziur nago anai, lagun azko alkar agurtuko dutela. "Eguarri" egunean, Lekeitio'ko seme "Endaitz", euzkal idazle jator-jatorra ezagutu eta agurtu egiteko aldi ona izan det.

IXAKA

#### EGUNA, 1937-1-31 LEKEITIO

NASTE-BORRASTE. —Egunak bata bestearen ondoren, lau illabete igaro ditugu erri polit ontan, eta erritar ez gerarik ez det uzte. Ametz, bai etxe-txokoa, baña urrutu bizi bearreko ontan ez gera asarre onenbestean.

—Jakiorni edo jateko gauz eta edari "partitzea" dala ta notin lerro edo "kolak" izaten dira eta bear baño zarata ta izkanbila geyago nere ustez.

Ardo goxoaren ametzak batez ere, ibiliera ederrik erazo digu.

—Gorde-leku eta beste lanetan langile ta erbeste asko ari dira lanean. Gorde-lekuak batez ere, egoki-egokiak egiten ari dira.

Egazkin ankerrak ematen duten (ULERTEZINA)

—Irakurgaietara, zaletasuna bai dala esan leike. Gazte azko "liburu" edo irakurgaiak galtzarbean dutela ikusten dira.

Euzkotarra ba zera, zureak dituzunak irakurri,

Ara EGUNA, "Euzkadi", "Euzko-Langile", zeureak dituzu eta, Kontuz besteekin.

SAMIN AGURRA. —Ermua'ko errian Bengoetxea ta Isasmendi'tar Kepe andereño eta abertzale zintzoa il dala, izparra degu. (G. B.).

Aldi larri ontan agur samiña bialtzen diot bere ita Bengoetxeari, Gilema, "Txinduri", abertzale jatorrari bai neure izenean, baita Ormaetxea'tar Alexander "Ermu-zale", ta Zabalá'tar Kasimir "pelotarien" izenean.

ARBINTXERI. —Agur eta jarrai izparkari lanean. Ezagutzea alkar izan ote liteke? Agur.

IXAKA

#### EGUNA, 1937-2-19 LEKEITIO'TIK BERMEORA

Baña etxeke eta barru-barruko artuak gaituzte Gipuzko maitea utzi ta Bizkaí'ko anai arteratu giñan ezkeroz.

Elgoibar'tik Lekeitio'ra giñan aldi batean.

Lekeitio'k ondo-ondo izan gaitu. Gaur, ezkerrek eman bearrean arkitzen naiz, erritar lekeitiotarrai.

Ezker ona, lerro auen bidez azaldu naian, nazute bada agur biotzkorra batera.

Gaur nere biotzak

Ezker dario.

Ara Bermeo'tik

Agur Lekeitio.

(...) ARTIKULUAK JARRAITU EGITEN DU

IXAKA



# Zertarako dogu, ba, euzkera bako aberrija?

Arbintxeren kronikak

## Lekeitio

GABONAK. — Alaitasuna andi barik juan yakuz aurtengo Gabonak, alegrentzi ederra gure sukaldietatik urun dala. Etxeko gustiak onelako egunetan, kanpuan aixe otza dan bitartian, sutonduan baturik amaika bidar lekittarrok pozez ganezka emoniko jai gomutagarriak.

Baña, aurtan, tristeziak jota ibilli gara.

Geure eriko gastedi ederra, etxietatik urun eta bananduta ixan dogu, pasista ta erreketek mararikatuak atara daben gerra zitala dala-ta, kaliak utsik, etxiak utsago.

Karakolik jaterik be, eztozu erez ixan oi-dan lez, lagungari bakarra dau mama gozorik eztozu ixan da. Bizkor ibili djanak zerbait lofutu dabe, baña geyenak ura edanda egon biar.

Eskefak itxasotik arrain preskua sendo ekarri dabena, bestela gosiaz guak einda ibilli biatko genduan, eta ganera... Kanpaia noiz entzungo gordelekuetara auka eituko.

Gabonez, gure gudari zintzorik asko etxera osteratxua egitera etofi yakuzan. Euzkadi'ko guda onetan nai dan beste ibilli ondoren.

BEDERATZIURENA. — Josu Umiaren bederatzi urfena ixaten da illuntzetan beko, elexan.

ERIJOTZA. — Atzo il zan, bere bixitxako larogeta bederatzi garren urtera eldurik Etxebarrieta'tar Eroman jauna, gustiz ezaguna gure erri onetan.

Gexo luziari ainbeste denporan eutsi dautsan aren, jaungoikua'ren deyarri ezlu ukapenik egin.

"Salbalira"ko arduradun nagosi ta bizkorra ixan dogu aspaldiko urtietan, ixan daben adina gorabera, ta zeregin onetan ezaban utzitasunik ifioiz ixan.

Atsekabian laguntzen dautsegu ain ezagun doguzan bere senide ta etxekoei ta zuk, irakurle otoi bat aren gogo alde. Goyan bego.

ARBINTXE.

#### EGUNA, 1937-1-8 LEKEITIO

GABONAK. — Alaitasuna andi barik juan yakuz aurtengo Gabonak, alegrentzi ederra gure sukaldietatik urrun dala. Etxeko gustiak onelako egunetan, kanpuan aixe otza dan bitartian, sutonduan baturik amaika bidar lekittarrok pozez ganezka emoniko jai gomutagarriak.

Baña aurtan, tristeziak jota ibilli gara.

Geure erriko gastedi ederra, etxietatik urrun eta bananduta ixan dogu, pasista ta erreketek mararikatuak atara daben gerra zitala dala-ta, kaliak utsik, etxiak utsago.

Karakolik jaterik be eztozu errez ixan oi-dan lez, lagungari bakarra dau mama gozorik eztozu ixan da. Bizkor ibilli diranak zerbait lortu dabe, baña geyenak ura edanda egon biar.

Eskerrek itxasotik arrain preskua sendo ekarri dabena, bestela gosiaz guak(?) einda ibilli biarko genduan, eta ganera... Kanpaia noiz entzungo gordelekuetara auka eituko.

Gabonez, gure gudari zintzorik asko etxera osteratxua egitera etofi yakuzan, Euzkadi'ko guda onetan nai dan beste ibilli ondoren.

BEDERATZIURENA. — Josu Umiaren bederatzi urrena ixaten da illuntzetan beko elexan.

ERIJOTZA. — Atzo il zan, bere bixitxako larogeta bederatzi garren urtera eldurik Etxebarrieta'tar Eroman jauna, gustiz ezaguna gure erri onetan.

Gexo luziari ainbeste denporan eutsi dautsan aren, jaungoikua'ren deyarri ezlu ukapenik egin.

"Salbalira"ko arduradun nagosi ta bizkorra ixan dogu aspaldiko urtietan, ixan daben adina gorabera, ta zeregin onetan ezaban utzitasunik ifioiz ixan.

Atsekabian laguntzen dautsegu ain ezagun doguzan bere senide ta etxekoei ta zuk irakurle otoi bat aren gogo alde. Goyan bego.

ARBINTXE

## EGUNA, 1937-1-12 LEKEITIO

**BESIGUA.** —Aurtengo besigitia belu asi baña, ain txarra danik ezin esan. Arrain preskua ija egunero dakazkue, ta ugari samar ekarri be.

Ori dala-ta, ezkabiz guztiz txarto be Janariz, orain, eztogu eskasirik. Ogija, nai dan beste, ta ganera artua, talua... Gosiaz ilgo gariela-ta ibilli zirian erreketiak eztauko preskuria makala. Ta ganera orretrek piratok ezpalitzakez...

Ori dala-ta, ezkabiz guztiz txarto benago (sic) eldu yazuk arautziak ezteritxazu, irakurle?

Marmuak dirudijen asko ibilli dabiz emengo kalietan, barregarriro jantzirik, soñeko ta buruko.

**ERDERAZ.** —Gure erritarrai erderazalatasun piskat sartu yakela barrura sumau dogu. Abertzaliok, gaur inoiz baño geyago, errez be errez egin geinken Euzkadi aldeko lan andija, beti ta edonun euzkeraz egitia da.

Beste erri bat gariana orrelantxe erakutsiko dogu, beste edozetara baño obeto. Euzkerea da gure berbetia, euzkerea gure gurasoena. Euzkerea izan bear da gure ondorengoena be.

Erdaldunetz baterik aurkitzen garan une onetan euzkerek garalle urten bear dau. Zertarako dogu, ba, euzkera bako aberrija?

"EGUNA". —Eguneroko barri au gogortsu irakurten dabe erri onetan. Pillo politta elduten da, bañan Lekeitio dan uri euzkeldunaz asko be geyago zabaldu biar dogu.

Irakurle bakotzak beste bat egin biar dogu. Ta beste idazle lagun bat ba'neuke neuk be, oba neuke. Ez ete da errijon euzkel-idazlerik gelditu? Aldi baten ugari zirian, baña...

ARBINTXE

## EGUNA, 1937-1-19 LEKEITIO

**ARRANTZUA.** —Inoizko polittuen dakarre arraña aurtengo neguan gure arrantzale maitiak, naita itxasontzi gitxi juan arrantzuan.

Besigua eta papardua ija egunero izaten doguz presko-preskorik.

Saso bateko piratentzako bildurra alde batera utzi eta abaut (sic, abant), mutillak eguneroko jakijaren billa.

"Lau sagar gordin,  
Ogi piska bat,  
Eguneroko jakija,  
Señeru gaizto, Demonihua  
Beti itsasora deya..."

Kanta zarrok ez doguz aspaldijan entzun, gazte guztiak itxasuan barik, mendijan yabilkuz-eta...

**EUZKEL IDAZLEAK.** —Ainbat eta ainbat dira inpernuko paxisten matxiñada uan dala-ta il dauskuezanak. "Aitzol", Azkueren omen egunian geure erritarrak aberri-suz txinpartaka ipini ebazan euz-

kotar gizon andija..., Markiegi, Lekuona, "Aberri", "Kilimon"...

Guztion gogoen alde eleikizun bat egin gura dabe euzkel idazle lagunak, ementxe, Bizkaya'n eta orretarako, danon laguntza eta alkartasunaz izan dedin arpide bat edegi dabe emengo Euzko-Batzokijan be.

Euzkeltzale orrek, ba-dakizu, ba.

**"EUZKADI EGAZKIÑA.** —Ba-dakije gure irakurle guztiak Euzko-Gobernuari erregaluz edo bezuzatzat zer emoteko ustia dagon. Egazkin bat, barri-barrija, eta "Euzkadi" deritxo egazkin hori, euzkotar guztien laguntasunaz erosiko da-ta.

**GUDARIJAK.** —Zapatu illuntzian, kaliak betian eldu yakuzan lekitar gudari pillo ederra. Etxekuen eta adizkidien poza ezan makala.

"Aurrera beti" sallekua dira, eta "Otxandiano" batallokuak larunbatian eldu yakuzanak.

Irurogeta bi egun egin dabe mendijan inora be zirkiñik egin barik. Eztira, gero, zortzi egun! Eta ezer ezpalira lez jantzi loyak kendu, arpegijak garbitu eta beti lez, alai ta baketsu ikusi doguz kalietan. Aurrera eta ondo etorririk be eztabe izan, orraitio. Ez al dabe merezi ixan? Bai, eta milla bidar, bai.

Etxian izan dabe pozik andijena. Guraso egin eta seme-alabak ezagututeko astirik orañarte izan eztabenak, zer andijagorik, eurak laztandutia baño?

Ondo etorri, eta atsedan, mutillak

ARBINTXE

## EGUNA, 1937-1-29 LEKEITIO

**ZINKUNEGI'TAR ANDONI.** —Gixon donga batzuk sortutako guda madarikatuak, bere menpe artu eta eruan au, Andoni gure artetik. Emen geratu dok, etxe bat utsik, eure utsuniaz, eta Aberrija emen seme bat gitxiago daua.

Matxiñada baltz onetan lenengo egunetik gudari intzan, eta azkenerarte gudari iraun dok. Aintzagarrija euzkotar batentzat, eta aurpegira jaurtitzeko jarraibide bikaña, aberkide epel askorentzat.

Amaika gudari gasten ixenak lerrokada luzietan idatzi induzan, eta euren artian, euria. Geruago, itxastar intzan-ta, itxas-gudari egiñaz alde uan emendik.

Ta or abija intzan, gau eta egun, Bizkai'ko izpazterrak, lapurretaz eta arerijoetaz garbitzen, eta Kantauri aldi bai gure Errijari amaika mesede egin be. Guenez, ortxe ixan dok eure nekien amaya, ortxe Aberriarentzat eskeintza osua; opaldiriko itz eta ziña ortxe ziario egiztau eta osoro bete dozak. Arrats aren epela! Alde uan aberri-lurratetik, eta euzko-itxasuan ostendu intzan, gixaguren eta ziñopak oi-diran lez, ixil, bare, jasankor, garbi...

Euzkadi'ren berpizkunde arrigarriau odolez egiña ixateko ei zuan. Olantxe jazo be. Ziñopaen artian bego ire ixena be.

**ELEIZKIXUNAK.** —Juan dan zapatuan ixan zirian elexa nagosijan Zinkunegi'tar Andoni aberri-diaren gogo aldeko ileta ta il-otoyak.

Lagun asko erdu zan, euren artian etxian egozan gudari erritarrak.

Atsekabian lagun gayakez aren senidiai. (G. B.).

**ASTERIK ASTE.** —Janari banaketak ixan doguz oingo astian be. Orijo, arroz, garbantzu, eta ganera umiak nayan daben txokolatia, liberdi buruko.

Ardaa noiz elduko ete dan, gurariz dago jentia, baña, ezta kigu ba, noiz ixango dan.

"Linea" zainduteko aukeria dabe gixonezko askok orainguan, tripak finduta-ta ikusten doguz ba. Lastimia koloriak zuritu biarra.

**GORDELEKUAK.** —Barriak egiten gabiltz, ta bizkor ibilli be. Lenguen ganera, iru ederrak geldituko dira, goi-aldean, erdijan eta beian

ARBINTXE

## EGUNA, 1937-2-9 LEKEITIO

**ERIJOTZA.** —Juan dan astian, erijotza bi ixan doguz. Azkue'tar Aurora andrea bata, Azkue lekeitiar ospatsuren arrebea.

Bestea, Dolaraga'tar Agurtzane andera zarra.

Ezagun be ezagun doguzan ildakoen senidia geure tamal agurra agertu gura dautsegu.

Otoi bat irakurle, euren gogoen alde. Goyan begoz.

**ARANTZAZU.** —Orainguan ez dakazkue arrain ugari, batian axia dala, ta urrenguan piratak dirala.

**DANTZARIJAK.** —Domekan be, zarrapia egon zan plazan, auspo-soñuaz. Emengo plazia dantzan egiteko naikua dala deritxogu, kioskuan barruan bertan be jantzan asi barik. Ez al da egija?

**"EUZKADI EGAZKIÑA.** —Batzokija'n edegita dago arpidea "Euzkadi" egazkiña alik lasterren eusteko dirua batzeko.

Ainbat lagunek emon dabe dagoneko.

**ITXASALDEREN IKURRIÑA.** —Egitten diardue "Itxasalde" batalloiarentzat ikurrin barrija, eta ederra ixango ei-da.

Onespen-jayak noiz ixango diran, jakin baxen laster adierazoko dogu.

ARBINTXE

# Bide barriak

Ertzeren kronikak



Erramon Ertze

EGUNA, 1937-4-9

**BIDE BARRIA**

**ESTADUAREN AURREZ-AURRE**

Bagenekian laterrekeria gaitzik audienciarikoa dana.

Laterri edo Estaduak bere arloa dau Errijaren bizitzan; eta arlo orretan dabilen artean, ondo dabil. Baña berari yaokan sailletik urten eta besteenetara sartuten danean, orduan doguz bai laterrikeria ta estaduaren geyegikeriak...

Gauza ederrak egiteko naiko da sarri gizon bakarra. Geyenetan baña... beste gizonak azkartu bear dau... Eta gizarteaganazko eginbearrak ditu beronek. Baña gizartea gizonarentzat dala esan bear, ez gizona gizartearentzat.

Bizitza onetan gizarte asko doguz gizonak. Sendia dala-ta, ogibide-alkargoak dirala-ta... Ez da Estadiau gizarte bakarra. Mundu onetakoan artean gorengoa bai, bear ba-da. Baña gizarteotatik bat baño ez...

Gizonaren azkatasunari lotsea izan bear dautso Estaduak... Ez dau Estaduak, gizon bakar ala alkartuak egin daikezan lanak zetan egin bearrik. Eurak baño txartoago egingo dabezelako. Gizon eta alkargoen eskubide zindezako ito ta ukatuko dabezelako...

Ez dago gizona bakarrik zorionez. Estaduaren aurrez-aurre, bitarteko gizarteak be gizonaren azkatasun-jagolerik onenatarikoak diralako...

Liberalkeririk porrot egin dau; gizarteke-riak -komunismoa nai fatxismoa izan- be bai. Ez goaz gu euren arteko bakerik egiten. Gu-zurrak guzurra il dau. Ereitzi oker bi orreik ainbat negar eragin ondoren, bata bestea il dabe. Baztertu dagiguzan euron agurrak. Eta gizarte barrira garoazan bideak zabaldu. Gogo-zaleak gareanok sortu bear dogun gizarte-ara garoazanak.

EGUNA, 1937-5-8

**BIDE BARRIAK**

**ABERTZALE-LANA**

Abertzaleak gara. Euzko-abertzaleak. Bigarren gizaldiko euzko-abertzaleak atan be. Gure gurasoak lañoak urratu ebezen, bideak zabaldu...

Azkatasunaren atzetik dabizan errien bizitzan, aldiak eta aldiak agertuten yakuz. Lenengo aldia itxarkunde-aldia da. Lo zorroan egoan erriaren itxarkundea. Biotzak dagi geyen be aldi orretan. Zabalkundea egin bear da. Aberri-egiz buruak argitu, bere garrez biotzak berotu... Erria lo dago, eta lo dagiana itxartuteko es ei-dira egoki samurkeriak. Lan neketsua...

Eta bigarrena asi, bigarren gizaldiko abertzaleen aldia. Bear bada, lengo geyegikeriak leundu egiten dira. Utz gaziak gozotu. Ez ordea, eragozpenak urritu, ugaritu baño... Erria egin, betik asita gora aberria jaso, bere bizitza osoa edertu ta landu...

Lan eder orrek mueta asko ditu, arlo ugari. Ez da politika-arazoa abertzaletasun bakarra, bere arpegi bat baño. Abertzaletasuna gorago dago, zabalago da...

EGUNA, 1937-5-9

**BIDE BARRIAK**

**GURE ABERTZALETASUNA**

Gure abertzaletasuna ez da abertzalekeria. Lenengo ta bein, ez dogu aberria gure Jaungoiko. Bakoizkeriaren aurka gagoz, baita gizarte-keriaren aurrez-aurre be. Aberriarenganako eginbearrak doguz... Baña aberria gizonaren onerako da.

(...) Aberria, bitarteko-elburu dogu; ez ordea azken-elburu. Ondasun ederra, ez gorena baña. Aberriaren ganetik gizona dogu. Gizonaren ganetik beronen Elburu Gurena.

(...) Gure abertzaletasuna ez doa, ganera, beste aberrien eskubide zindoen aurka.

(...) Ain zuzen be, gizaldi osoaren onerako dira aberrien bestelakotasun eta bereiztasunak...

(...) Gure aberriak be bere zeregiña dau. "Eman da zabalzazu munduan frutua", iñotsan Gernikako Zugaitza'ri erri-olerkari ospetsuak. Eta egin dau bai zerbait euzko-erri zaarrak ludiaren alde!

Gaur egunetako Euzkadi'k, bere eginbear ori beteten jarraitu bear dau. Euzkotar izanda, bete bear be, euzko-izatea galdua. Eta bakarra da gure erriari orretarako yaokan bidea. Bide zuzena. Naste bako bidea. Azkatasun eta burujabetasun-bidea. Olantxe eutsiko dautsagu geure izateari...

Kistar gozoz igortziriko euzko-abertzaletasuna. Abertzaletasun langille ta eragiña... Ludio erri guztiakin anai-lokarriz alkartuta egon gura dabena...


BIDE BARRIA

ESTADUAREN AURREZ-AURRE

Bagenekian laterrekeria gaitzik audienciarikoa dana. Laterri edo Estaduak bere arloa dau Errijaren bizitzan; eta arlo orretan dabilen artean, ondo dabil. Baña berari yaokan sailletik urten eta besteenetara sartuten danean, orduan doguz bai laterrikeria ta estaduaren geyegikeriak...

Gauza ederrak egiteko naiko da sarri gizon bakarra. Geyenetan baña... beste gizonak azkartu bear dau... Eta gizarteaganazko eginbearrak ditu beronek. Baña gizartea gizonarentzat dala esan bear, ez gizona gizartearentzat.

Bizitza onetan gizarte asko doguz gizonak. Sendia dala-ta, ogibide-alkargoak dirala-ta, gizonak azkartu bear dau... Ez da Estadiau gizarte bakarra. Mundu onetakoan artean gorengoa bai, bear ba-da. Baña gizarteotatik bat baño ez...



BIDE BARRIAK

Abertzale-lana

Abertzaleak gara. Euzko-abertzaleak. Bigarren gizaldiko euzko-abertzaleak atan be. Gure gurasoak lañoak urratu ebezen, bideak zabaldu... Bagoizkeriaren aurka gagoz, baita gizarte-keriaren aurrez-aurre be. Aberriarenganako eginbearrak doguz... Baña aberria gizonaren onerako da.

(...) Aberria, bitarteko-elburu dogu; ez ordea azken-elburu. Ondasun ederra, ez gorena baña. Aberriaren ganetik gizona dogu. Gizonaren ganetik beronen Elburu Gurena.

(...) Gure abertzaletasuna ez doa, ganera, beste aberrien eskubide zindoen aurka.

(...) Ain zuzen be, gizaldi osoaren onerako dira aberrien bestelakotasun eta bereiztasunak...

(...) Gure aberriak be bere zeregiña dau. "Eman da zabalzazu munduan frutua", iñotsan Gernikako Zugaitza'ri erri-olerkari ospetsuak. Eta egin dau bai zerbait euzko-erri zaarrak ludiaren alde!

Gaur egunetako Euzkadi'k, bere eginbear ori beteten jarraitu bear dau. Euzkotar izanda, bete bear be, euzko-izatea galdua. Eta bakarra da gure erriari orretarako yaokan bidea. Bide zuzena. Naste bako bidea. Azkatasun eta burujabetasun-bidea. Olantxe eutsiko dautsagu geure izateari...

ERRETATIAK ESKANOK.